

Gure proiektuaren izena Beti-Xiku da, eta berau garatu dugu hasiera batean izan genuen ideia batetik: aterkiontzi batzuk saltzea. Aterkiontzi hauek ez dira edozein, baizik eta aterki txikientzat balio dute, eta gainera, hauek duten ezaugarri bereizgarri bat da ura xurgatuko dutela aterkietatik, beraz, errazagoa eta praktikoagoa izango da horrelako produktu bat eskura izatea aterkiak lehenbailehen lehortu ahal izateko. Produktuaren estetikari dagokionez, politak dira, eta diseinu ezberdinak daude eskuratzeko prest.